

AUTOMOZIOA 2. maila

2022-2023 kurtsoa

KOMUNIKAZIOA



ALE

ARETXABALETA
Lanbide Eskola

Lanbide Heziketako
Ikastetxe Integratua

Ahozko komunikazioa

www.ale-aretxabaleta.eus

AURKEZPENAREN ESKEMA

ESKEMA

A. Hasiera

Arreta erakarri. Interesa piztu.

Edukien berri eman (1, 2, 3, 4).

Onginahia irabazi. 1. inpresioa.

B. Gorputza. Edukiak. Garapena

1. Ideiak - Gai nagusiak

- Sinplifikatu eta 3-4 ideia nagusitan bildu.
- Azpigaiak/azpi-ideiak.
- Ordena. Loturak. Aurrerapena.

2. Hurbiltasuna

- Hurbiltasuna eta familiartasuna.
- Argitasuna. Soiltasuna. Laburtasuna.

3. Eraginkortasuna

- Zehaztasuna.
- Probak eta argudioak.
- Sinesgarritasuna. Adibideak. Datuak eta estatistikak.

4. Beste baliabide batzuk

- Metaforak.
- Anekdotak eta gertaerak. Norberaren esperientziak.
- Istorioak eta kontakizunak. Lekukotzak.
- Umorea.

C. Amaiera. Ondorioak

Argudio eta ideia nagusien laburpena.

AURKEZPENAREN EZAUGARRIAK


– HIZKERA ARGIA ETA ERRAZA:

- Argi eta garbi azaldu ezin den ideia bat ez da jendeari luzatzeko ideia ona.
- Ulertu ezin den hitza hitz txarra da.
- Hitzik ulergarrienak erabiliz soilik lortuko duzu zure mezua entzule gehienengana helaraztea.
- Egokitu zure hizkera; argia eta erraza izan behar du. Horregatik ez du kalitatea edo intentsitatea galduko.
- Beste gauza bat baita arrunkeria, baldarkeria, tabernako solasaldia...

AURKEZPENAREN EZAUGARRIAK

– SINPLETASUNA ETA LABURTASUNA:


- Gutxiago... gehiago da.
- Funtsezkoa ez dena zarata da.
- Jendea aspertzeko sekretua den-dena kontatzea da.
- Hitzaldi bat on bihurtzen duena ez da bertan garatzen den ideia kopurua, ideiak aurkezteko argitasuna baizik.
- Daukazu denbora eta, batez ere, jendearen arreta mugatuak dira.



AURKEZPENAREN EZAUGARRIAK

– GORPUTZ LENGOAIA ETA AHOTSA: energia arketipoak


- **Gerlaria:** indarra, konbentzimendua erabiltzea erabilgarria da zuzentzeko, aitzindari izateko eta ekintza gauzatzeko
- **Maitalea:** ulertzea, aintzatestea, entzutea erabilgarria da konfiantza piztu eta egoera zailak kudeatzeko
- **Irakaslea:** pentsamendu logiko eta razionala lantzen du. Zehaztasunak eta argitasunak sinesgarritasun handia ematen dute.
- **Aztia:** sortzea, berritzea, ezerezetik ustekabeko zerbait ateratzea
- **Ameslaria:** etorkizunera begiratzea iraganera begiratzea baino askoz hobe da.



AURKEZPENAREN EZAUGARRIAK

– ALDEZ AURRETIKO SAIAKUNTZA


- Hitzaldiak behar duen denbora hauteman, gabeziak eta alderdi ahulenak zein diren zuzendu ahal izateko.
- Ikus-entzunezko lagungarriak probatu berbaldian ondo egokitzen direla ziurtatzeko
- Hitzaldia memorizatzekeo.
- Hitz egiten dugunean konturatzen gara akatsak non dauden, lotuta zegoela uste genuena benetan ez dagoela. Hasiera eta amaiera entseatu beharko dira gehien.



AURKEZPENAREN EZAUGARRIAK

– LAGUNGARRI BISUALAK: nolakoak izan behar dute?

- **Argiak eta soilak.** Entzuleek berehala ulertu eta barneratu behar dituzte. Ideia nagusiak azpimarratu behar dituzte.
- **Argiak eta irakurterrazak.** Aretoko edozein tokitatik ondo irakur daitezzen, tamaina eta kontraste egokiekin. Ahalik eta testu gutxien
- **Soilak.** Diseinu-lehentasun argiak izan behar ditu. Ahalik eta baliabide gutxienak erabiliz, eragin handiena lortzean datza.
- **Erakargarriak.** begiratzeko atseginak izan behar dute. Irudien nagusitasunaren efektua lortu nahi da, komunikatzeko modu naturala dira.
- Ondo **egituratu** eta **orijinalak**.



AURKEZPENAREN EZAUGARRIAK

– LAGUNGARRI BISUALAK: nola erabili

- Hitzak baino errentagarriagoak direnean erabili.
- Informazio gutxi eskaini. Ahalik eta testu gutxien
- Irudi bakoitzean ideia bakarra, kontzeptu desberdinak nahasi gabe.
- Jendeari hitz egin, ez materialei.
- Arlo teknikoa aurreikusi.
- Hobeto gailua manipulatzeko ez ikustea



AURKEZPENAREN EZAUGARRIAK

– GORPUTZ MINTZAIRA


Albert Mehrabian, komunikazio-gaietan aintzatespen handia duen ikerlariaren arabera:



AURKEZPENAREN EZAUGARRIAK

– GORPUTZ MINTZAIRA: abiadura, arnasa, etenak


- Entzuleak “ikusteko” eta haien erreakzioez jabetzeko begirada ahalbidetzen du.
- Eskuekin, gorputzarekin... adierazgarritasun handiagoa.
- Kalitate handiagoko ahotsa, ebakeran, doinuan, bolumenean, enfatizatzeko orduan.
- Denboraren eta espazioaren kontrol handiagoa.
- Pentsatzeko eta inprobisatzeko denbora gehiago.
- Segurtasun, indar eta konfiantzaren irudia.
- Entzuleengan interes handiagoa pizten dugu.



AURKEZPENAREN EZAUGARRIAK

– GORPUTZ MINTZAIRA: tente hitz egitea


- Hobeto arnas hartzen dugulako eta ahotsa hobeto proiektatzen dugulako.
- Jendearekiko lotura bisuala ahalbidetzen digulako.
- Gorputz mintzaira hobea dugulako.
- Gorputzaren jarrerari dagokionez, zut egon behar da, apur bat aurrerantz makurtuta, baina erlaxatuta eta bularrik atera gabe.
- Balantzak eta dantzak saihestu.
- Gorputza entzuleengana begira eduki.



AURKEZPENAREN EZAUGARRIAK

– **GORPUTZ MINTZAIRA:** keinuen eta edukien arteko harremana

- Gorputzaren mugimenduak mintzaldiaren mugimendua biziarazi behar du. Hala eginez gero, koherentzia eta sinesgarritasuna izango ditugu.
- **Irribarrea**, gure presentzia estetiko eta bisuala hobetzen duen elementu bat da eta jendeak bene-benetan eskertzen du



AURKEZPENAREN EZAUGARRIAK

– GORPUTZ MINTZAIRA: jendearekiko lotura bisuala

- Konexio-bide aparta da.
- Feedbacka ahalbidetzen du.
- Arreta handitzen du, eta interesari eusten laguntzen du
- Erreakzioak eta erantzunak ikustea, “irakurtzea” eta “entzutea” ahalbidetzen du.
- Beharrezkoa eta posible bada, hitzaldiaren norabidea zuzentzeko aukera ematen digu
- Agintea eta konfiantza erakusten du.
- Zintzotasuna eta zuzentasuna ere bai .
- Berarekin gaudela hautematen du, kontuan hartzen dugula



AURKEZPENAREN EZAUGARRIAK

– GORPUTZ MINTZAIRA: eskuak solte eta libre

- Eskuak aparteko adierazpidea dira. Gogoia jartzen badugu, bat-batean, bere kasa mugituko dira. Hitz egin dezagun eskuekin.
- Hainbat gauza saihesten ahalegindu behar dugu: bizkarrean ipintzea, besoak gurutzatzea, poltsikoetan sartzea, ezkutatzea, bihurritzea edo igurztea, entzuleak seinalatzea...
- Kontuz ibili eraztunekin, erlojuarekin edo botoiekin jolasten ibiltzearekin, hazka egitearekin, hatz-muturrez mahaian joka aritzearekin...

ERABAKI ETORKIZUNA

ALE-ko Tfonoa: 943 797 900 / 943 797 943

www.ale-aretxabaleta.eus



@AretxabaletaLE



@AretxabaletaLE



@aretxabaletalanbideskola



ALE Aretxabaleta Lanbide Eskola



Aretxabaleta Lanbide Eskola

ALE

ARETXABAleta

Lanbide Eskola

Lanbide Heziketako
Ikastetxe Integratua